

5.KANALAK

FUNTZIOAREN ARABERAKOAK:

- **Komunikazio kanalak:** Bezeroei informazioa transmititzen diogu eta produktuei buruzko interesa sortzen lagutzen digute. Hala nola, gure Web orrialdea non jantziak erosi ahal dituzte eta gazteei errazago ailegatzeko sare sozialak erabiliko ditugu, hala, Instagram eta Tik Tok-a.

Instagram eta Tik Tok aplikazioetan enpresaren kontu bat sortu dugu gure burua ezagutarazteko. Bertan, bezeroei eta gure jarraitzaileei inkestak egingo dizkiegu haien iritzia ezagutzeko, horrela bai bezeroak bai jarraitzaileek gure enpresaren parte sentitzeko aukera izango dute eta horrek bezeroak fidelizatzen lagunduko digu. Era berean, jantzien aurreko eta ondorengo itxura erakutsiko dugu, erakusteko diseinu berriak eta arropak izan zuten aldaketa nabarmentzeko. Aplikazio hauen bidez gure bezeroengandik hurbil egoten saiatuko gara, eta aldi berean irudi profesional bat transmitituko dugu. Gainera, denborarekin eta inkesten bidez jasotako iritziei esker, gure produktuak eta enpresa bezeroen beharretara moldatu ahal izango ditugu.

- **Banaketa kanalak:** Gure enpresak behar duen banaketa kanala produktu pakete desberdinak eramatea gure bezeroei da, horretarako Correos, paketeritzako enpresa, erabiliko dugu. Correos enpresa tamaina desberdinetako paketeak lekualdatzen dutelako eta estatu mailan gehien ezagutzen den bidalketa-enpresetako bat da. Hala ere, gure enpresaren banaketa kanala handiena denda fisikoa izango da, bertan gure jantziak zuzenean egongo dira bezeroek ikusi eta erosi ahal izateko. Gainera, gure web orrialdean eta gure sare sozialetan online erosteko posibilitatea egongo da bezero guztien eskura egon ahal izateko.
- **Salmenta kanala:** gure ideia BEC ekitaldietara ailegatzeta da, baina hasiera batean ekitaldi txiketara ailegatzeta da. Adibidez, Original Bilbao Pop Up eta vintage bilbao ekintzetan hasieran joango ginatke ezagutzera eman ahal izateko eta jendeak gure enpresaren sorreraz jakinarazteko.

Sare sozialen link-a eta web orrialdea:

- **Instagram:**  NovaLuna (@novaluna_2) • Instagram profile
- **Tik Tok:**  novaluna on TikTok
- **Web Orrialdea:** <https://buffalo-bassoon-z2j3.squarespace.com/config/pages>

Gure enpresaren garapen-prozesuaren barruan, webgunea sortu dugu proiektuaren presentazioa eta etorkizuneko produktuen erakusketa antolatzeke. Hala ere, une honetan webgunean ez dago oraindik jendeari zuzendutako produkturik ikusgai. Horren arrazoia da enpresa oraindik ez dagoela guztiz martxan eta, ondorioz, ez dugula oraindik edukia modu publikoan argitaratzeko prest egokitzen jo.

Proiektua oraindik fase operatibo eta sortzailean kokatzen da. Une honetan ari gara gure lehen piezen diseinuak fintzen, material berreskuratutak sailkatzen eta produkzio-prozesuak egokitzen. Horrez gain, markaren irudia, komunikazio-estiloa eta webgunean erabiliko diren edukien egitura lantzen ari gara. Lan guzti hauek amaitu arte, ez dugu uste egokia denik webgunea produktu katalogo gisa irekitzea.

Webgunea, beraz, oraingoz oinarrizko informazioa jasotzeko tresna gisa funtzionatzen du: proiektuaren izaera, helburu nagusiak eta garapenaren egoera azaltzeko. Edukia ez egotea ez da utzikeriaren ondorio, baizik eta estrategikoa den erabaki bat, produktu fisikoak eta digitalak behar bezala prest daudela bermatzeko.

Aurrez aurreko lanekin batera; pieza berrien prestaketa, markaren posizionamendua eta StarInnova proiektuaren barruko dokumentazioa, webgunea eguneratzeko prozesua aurrera doa. Behin enpresaren jardura guztiz martxan dagoenean eta produktuak amaituta daudenean, webgunean katalogoa txertatzeko eta publikoarentzat zabaltzeko unea izango da.

